

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasunbideko larrialdi-zerbitzuek Sanferminei lotutako 391 artatze egin dituzte

Zifra hori azken urteotako txikiena da, % 26 jaitsi da 2014ko jaietan izan zenarekin alderatuz

Miércoles, 15 de julio de 2015

Osasunbideko ospitaleko eta ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuek jaietako zuzenean lotutako [391 artatze](#) egin dituzte Sanferminetan (hilaren 6ko gaueko hilaren 14ko gauerdirarte).

Zifra horren barnean entzierroko 41 lasterkariri egindako laguntzak sartzen dira (47, 2014an), eta haietatik hamarrek zezenen adarkadegatik sortutako zauriak izan dituzte (iaz baino bik gehiagok). Oraingoan, arreta gehien emandako entzierroa asteartekoa, hilak 7, izan zen, haietatik hiru zezenen adarkadengatik. Haren atzetik hilaren 11, larunbata, dator, 9 zauriturekin (haietako lau, adarkadengatik). Nolanahi ere, ostiralean, hilak 10, entzierroko lasterkari batek ere ez zuen arretarik jaso ospitaleko eta ospitalez kanpoko zerbitzuetan.

Aipatu beharra dago Sanferminetan arreta jasotako pertsonak % 26 jaitsi dela iaz zenbatu zirenaren aldean (530 artatze egin ziren). Izan ere, 2015eko zifra azken urteotako txikiena da; 2012koa, aldiz, handiena izan zen, urte hartan 657 artatze egin baitziren.

Datu horiek gaur goizean ezagutarazi dituzte Osasuneko jarduneko kontseilari Marta Verak; Zerbitzu Nagusien zuzendariorde Inma Gimena; Nafarroako ospitaleguneko Larrialdi Zerbitzuen Unitate Klinikoko buru Wifredo Soler-ek; eta Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuen Erizaintzako buru Antxon Garciak.

Marta Verak, bere agerraldian, "egun hauetan iruindarren eta hiria bisitatu duen guztien osasuna zaintzeko pertsona guztiek egindako ahalegina" eskertu du. NOZ-Osasunbideko profesionalei, Gurutze Gorriko eta DYAKo boluntarioei, Nafarroako Larrialdi Agentziari eta zezen-plazako osasun-langileei egindako aitortzen hori adierazi die kontseilariak.

Artatzeen xehetasuna

Entzierroetan, Nafarroako Ospitalegunek zauritutako 37 lasterkari artatu ditu, haietatik hamar zezenen adarkadengatik; San Martin Doktorea zentroan, berriz, lau lasterkari, haiek guztiak hainbat traumatismorengatik.

Artatutako lasterkari guztietatik, bederatzi ospitaleratu egin ziren. Gaur arte, haietako bost Nafarroako Ospitalegunean daude orain, haiek guztiak zezenen adarkadegatik eragindako zauriekin.

Bestalde, entzierroari lotu gabeko larrialdiko 341 artatzetatik, % 66,5 Nafarroako Ospitalegunean egin da eta, gainerakoa, San Martin Doktorea zentroan.

Artatutako paziente horien % 61 (208), traumatismo eta zauriekin. Askoz atzerago, erasoak ageri dira, % 16 (56 kasu), eta intoxikazio etilikoak, % 15 (50 kasu). Gainera, lau intoxikazio erregistratu dira drogengatik, eta 23 artatze beste arrazoi batzuegatik.

Uztailaren 7an, astearte, artatu zen jende gehien Osasunbideko ospitale eta ospitalez kanpoko larrialdi-zerbitzuetan (65). Atzetik datoz, hurrenkera honetan, hilak 8 (51), 10 (44) eta uztailak 6 eta 12 (41 eta 41). Egun lasaienak, aldiz, hilak 14 (11) eta 13 (18) izan dira.

Horrez gain, 112-SOS Navarra Larrialdiak Kudeatzeko Zentroak 565 anbulantzia mugiarazi ditu San Ferminetako jai hauetan.

Azkenik, Gurutze Gorriak 180 pertsona artatu ditu Lehen Mailako Arreta Unitatean, gehienak jaietakoak berezkoak diren patologia arinengatik (traumatismo txikiak, ebakiak, konorte-galtzeak, erorikoak, zorabioak edo intoxikazioak). Desbideratzea hurrengo laguntza-mailara pasatzen duen unitate hori (ospitalez kanpoko edo ospitaleko larrialdiak), Vázquez de Mella ikastetxe publikoan lanean izan da uztailaren 6, 7, 10, 11 eta 12an.